

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

382

EBAZPENA, 2021eko urtarrilaren 15ekoa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena, argitara ematen duena larrialdien eta babes zibilaren arloko bereizgarri berdeko merezimendu domina jasoko duten pertsonen zerrenda eta larrialdien eta babes zibilaren arloko merezimenduaren plaka-diploma jaso duten entitateen zerrenda.

Honako hauetan xedatutakoa oinarritzat hartu da: Segurtasuneko sailburuordearen 2020ko abenduaren 18ko eta 22ko ebazpenak, zeinen bidez ematen baitira larrialdietako eta babes zibileko bereizgarri berdeko dominak, eta Segurtasuneko sailburuordearen 2020ko abenduaren 18ko ebazpenak, zeinen bidez ematen baitira larrialdietako eta babes zibileko merezimenduen plakak-diplomak, –Eusko Jaurlaritzaren larrialdien eta babes zibilaren arloko sariei buruzko azaroaren 21eko 253/2017 Dekretuaren 12.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera–. Horrenbestez, eta Larrialdietako eta Babes Zibileko Sarien Balorazio Batzordearen ebazpen-proposamena entzun ostean, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Segurtasuneko sailburuordeak, 2020ko abenduaren 18ko eta 22ko Ebazpenaren bidez, larrialdien eta babes zibilaren arloan bereizgarri berdeko merezimendu-domina ematea ebatzi duela ondoren zehazten direnei:

- Roberto Aretxabala López.
- Imanol Domínguez de Miguel.
- Marcelino Domínguez González.
- Marcial Moduga Alonso.

Horiekin batera, Segurtasuneko sailburuordeak, 2020ko abenduaren 22ko Ebazpenaren bidez, larrialdien eta babes zibilaren arloan bereizgarri berdeko merezimendu-domina ematea ebatzi duela ondoren zehazten denari:

- María Jesusa Ancizar Eguilegor.

Bigarrena.– Argitara ematea Segurtasuneko sailburuordeak, 2020ko abenduaren 18ko Ebazpenaren bidez, larrialdien eta babes zibilaren arloan merezimenduaren plaka-diploma ematea ebatzi duela ondoren zehazten direnei:

- Arabako Psikologoaren Elkargo Ofiziala.
- Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofiziala.
- Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofiziala.

Hirugarrena.– Pertsona eta erakunde horiek domina edo plaka-diploma jasoko dute.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 15a.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria,
EGOITZ LABURU RODRIGUEZ.